	2018	2019	2020	2020/ 2019
TLM	54	137	255	% 86
CareSOS	19	35	36	% 3
KUU egokitua	105	108	110	% 2
GUZTIRA	178	280	401	% 43

KALITATEA

Besteak beste, bi kontrol-baliabide nagusi ditu zerbitzuaren kalitateak. Alde batetik, prestazio zuzenerako egokitzat jotako zerbitzu-mailen jarraipena, eta, bestetik, erabiltzaileen asetze-mailaren inkesta.

ZERBITZU-MAILAK

2018ko urrian hasitako kontratu berriaren errekerimenduek ezarri zuten, arreta-zentrorako zerbitzu-maila dela medio, deien % 90 hamar segundo baino gutxiagoan artatu behar dira. Zerbitzuak bermatzen duenez, jasotako deien % 100 artatzen dituzte teleoperazioko langileek.

2020an zehar, hauek izan dira hileko zerbitzu-mailak eta jasotako deiei erantzuteko batez besteko denborak:

	2020- urt.	2020- ots.	2020- mar.	2020- api.	2020- mai.	2020- eka.	2020- uzt.	2020- abu.	2020- ira.	2020- urr.	2020- aza.	2020- abe.	BATEZ BESTE
EBBD (seg)	4,78	4,55	4,66	4,52	4,43	4,26	4,51	4,56	4,56	4,51	4,33	4,40	4,51
ZM (%) 10''	90,73	92,13	91,48	91,53	91,57	91,59	91,37	91,17	91,15	90,76	92,23	91,63	91,45

Arreta-zentroan jasotako deien % 91,45 10 segundoan baino gutxiagoan artatu dira, eta erantzuteko batez besteko denbora 4,51 segundo dira.

ERABILTZAILIEN ASETZE-MAILA

Euskadiko telelaguntza-zerbitzu publikoak inkesta-zerbitzu bat kontratatzen du urtero, erabiltzaileen asetze-maila ezagutzeko. Inkesta hori derrigorrez egin behar da eta kanpo-enpresa batek egin ohi du. Haren xedea da erabiltzaileen iritzia jasotzea enpresa esleipendunak emandako zerbitzua osatzen duten alderdien inguruan.

1 eta 5 arteko balorazio-eskala erabili da (1 da asetze-mailarik txikiena eta 5 handiena). Emaiza hauek jaso dira alderdi bakoitzerako:




2020an, asetze-maila orokorrak 4,6 puntu izan ditu 5etik, eta alderdi denek jaso dute asetze-maila altua edo oso altua.



ERREKLAMAZIOAK

Teleguntza zerbitzu-publikoak erreklamazioak jasotzeko, lantzeko eta komunikatzeko sistema bat du. 2020an zehar 265 erreklamazio jaso dira guztira; 61 bidezkoak izan dira (% 23,02).

2020an jasotako erreklamazioak



Hona hemen erreklamazioen bilakaera:

	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Bidezkoak	35	27	44	74	87	61
Bidegabeak	100	136	204	236	213	204
GUZTIRA	135	163	248	310	300	265

500 erabiltzaileko bidezko erreklamazio 1 onar daiteke gehienez hilean. Urteko hilabete batean ere ez da adierazle hori gainditu.

	2020-urt.	2020-ots.	2020-mar.	2020-api.	2020-mai.	2020-eka.	2020-uzt.	2020-abu.	2020-ira.	2020-urr.	2020-aza.	2020-abe.
Bidezkoak	4	6	7	5	6	8	2	4	5	6	3	5
Bidegabeak	28	13	19	16	15	17	19	14	13	20	9	21
Errek. %/500 erabiltzaile	0,036	0,053	0,062	0,044	0,052	0,069	0,017	0,035	0,044	0,053	0,026	0,043

Kexak ebazteko batez besteko denbora 4,63 egun izan dira 2020an.



Jarraian, bidezko erreklamazioen arrazoiak zehazten dira:

BIDEZKO KEXEN ARRAZOIAK	2020
Arretan atzeratzea	21
Okerra zerbitzuaren prestazioan	14
Zerbitzu eskasa	3
Informazio eskasa	2
Teknologia / elementu akastuna	2
Baldintzak ez betetzea	1
Arreta desegokia	16
Beste batzuk	2
GUZTIRA	61

KALITATE-ZIURTAGIRIAK

BetiON Euskadiko telelaguntza-zerbitzu publikoaren kalitatea kudeatzeko sistemak honako ziurtagiriak ditu:

- ISO 9001:2008 ziurtagiria: kalitatea kudeatzeko sistema
- UNE 158401:2008 Telelaguntza-zerbitzuaren kalitate-baldintza propioak arautzen dituen araua.
- Informazioaren segurtasunari buruzko ISO 28001:2013.

EZARTZEA**TELELAGUNTZAREN BARNERATZE-MAILA LURRALDEAN**

Jarraian, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoan betiON zerbitzuaren barneratze-maila aurkezten da, lurralde historikoko pertsona nagusien ehunekoari helduta.

2020ko ekitaldiaren itxieran, 65 urtetik gorako biztanleen artean, telelaguntzaren estaldura % 11,41 izan da Euskadin, eta 0,2 puntu hazi da 2019arekin alderatuta.

Biztanle multzo horri dagokionez, barneratze-maila 0,50etik 0,51ra igo da, zerbitzua eskuratu duten erabiltzaileen hazkuntza 65 urtetik gorako biztanleen hazkuntza baino handiagoa izan delako.

Lurralde bakoitzean pertsona nagusien ehunekoa kontuan hartzen badugu, Bizkaiak eta Gipuzkoak maila berdina dute edo Euskadiko barneratze-maila -0,50- gainditzen dute, eta Araba horren azpitik dago -0,45-

	EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA			TELELAGUNTZA-ZERBITZU PUBLIKOA			
	GUZTIRA	+ 65 urte	%	GUZTIRA	TA + 65 urte	%	MAILA
Araba	330.209	69.520	% 21,05	6.828	6.658	% 9,58	0,45
Bizkaia	1.159.114	265.162	% 22,88	31.351	30.801	% 11,62	0,51
Gipuzkoa	710.388	159.682	% 22,48	19.626	18.934	% 11,86	0,53
GUZTIRA	2.199.711	494.364	% 22,47	57.805	56.393	% 11,41	0,51

Biztanleguneetako barneratze-maila aztertuz gero biztanle-kopuruaren arabera, barneratze-maila handiena dago 20.000 eta 30.000 biztanle arteko udalerrietan. Horietan 0,55eko barneratze-maila dago. Txikiena, ordez, 1.000 biztanletik beherako udalerrietan dago, 0,33koa.

Udalerriak	Kop.	2018			2019			2020		
		+ 65 urte %	TA %	MAILA	+ 65 urte %	TA %	MAILA	+ 65 urte %	TA %	MAILA
<1.000	99	% 21,51	% 6,57	0,31	% 21,75	% 7,36	0,34	% 22,10	% 7,24	0,33
1.000-5.000	82	% 19,67	% 8,24	0,42	% 19,90	% 9,04	0,45	% 20,11	% 9,32	0,46
5.000-10.000	29	% 19,83	% 9,46	0,48	% 20,13	% 10,51	0,52	% 20,45	% 10,92	0,53
10.000-20.000	23	% 21,03	% 9,67	0,46	% 21,37	% 10,75	0,50	% 21,56	% 11,02	0,51
20.000-30.000	8	% 22,06	% 10,96	0,5	% 22,15	% 11,96	0,54	% 22,33	% 12,21	0,55
30.000-50.000	5	% 24,10	% 10,79	0,45	% 24,38	% 11,91	0,49	% 24,54	% 12,25	0,50
>50.000	6	% 22,77	% 10,80	0,47	% 23,01	% 11,68	0,51	% 23,24	% 11,78	0,51
GUZTIRA	251	% 21,99	% 10,25	0,47	% 22,25	% 11,21	0,50	% 22,47	% 11,41	0,51

LOTURIKO GAILUAK/TEKNOLOGIA ETXEETAN

Oinarritzko zerbitzuaz gain, beste gailu baten instalazioa gehitzen du telelaguntzak (telelaguntza-ekipoa eta sakagailua ez ezik). Gailu horrek alarma-seinaleak bidaltzen dizkio zentralari arrisku-egoerak antzematen direnean, adibidez, kea/sua edo gasa erabiltzailearen etxean. Gailu horiei etxeko segurtasunekoak deritze, eta erabiltzaileari proposatzen zaizkio arriskua baloratu eta gero.

2020an zehar, zenbait detektagailuren instalazioa jarraitu da, adibidez: kea/sua, gasa, erorketa, mugikortasuna/pasibotasuna, karbono monoxidoa, etab.

Guztira, 3.237 gailu berri instalatu dira aurrean, eta, guztira instalatutako parkea 10.285koa da. 2019. urtearekin alderatuta, % 16,4 hazi da, eta TLM-ek izan dute hazkuntzarik handiena: % 86,1. Gehien erabili den gailua su- edo ke-detektagailua izan da, guztira, instalatutako gailuen % 66 osatzen duena. Honako taula honetan parkearen banaketa aurkezten da gailu motaren eta lurraldearen banaketaren arabera:

	Sua/kea	Gasa	Mugikortasuna	Erorketak	CO	CareSOS	TLM	Beste batzuk	GUZTIRA
Araba	765	112	58	144	2	4	21	5	1.111
Bizkaia	3.897	732	248	913	22	23	178	27	6.040
Gipuzkoa	2.179	403	102	363	8	9	56	14	3.134
GUZTIRA	6.841	1.247	408	1.420	32	36	255	46	10.285

Hauxe izan da 2016. urtetik 2020. urtera bitarteko bilakaera:

	2016		2017		2018		2019		2020	
	Gailuak	TA estalduraren %	Gailuak	TA estalduraren %	Gailuak	TA estalduraren %	Gailuak	TA estalduraren %	Gailuak	TA estalduraren %
Araba	515	% 10,66	565	% 10,78	728	% 11,97	927	% 13,86	1.111	% 16,27
Bizkaia	1.988	% 8,67	2.304	% 9,41	4.047	% 14,57	5.340	% 17,51	6.040	% 19,27
Gipuzkoa	1.307	% 10,18	1.518	% 10,71	2.028	% 12,39	2.704	% 14,48	3.134	% 15,97
GUZTIRA	3.810	% 9,39	4.387	% 10,00	6.803	% 13,54	8.971	% 16,06	10.285	% 17,79

Lau urteren buruan, gailu instalatuen kopurua 3.810etik 10.285ra hazi da, eta 57.805 erabiltzailetik % 17,79ko estaldura orokorra lortu da.

ETXEAK DIGITALIZATZEA

Oso teknologia finkatuko eta eraginkortasun handiko zerbitzua izan da telelaguntza. Hale ere, elektronikako zein informazio eta komunikazioetako teknologia berriak (EIKTb) hobekuntza teknikoen oinarriak izaten ari dira, eta zaintzen patroli tradizionala eraldatzen ari dira argi eta garbi. Eta hemen, telelaguntzak ezin du berrikuntzatik at geratu.

Horrela, 2020an jarraipena eman zaio telelaguntza-zerbitzua duten etxeak digitalizatzeko prozesuari, 2019an hasi zenari. 2020an, terminal digital hauek instalatu dira:



	GSM	Smart Hub	GUZTIRA
Araba	7	1.737	1.744
Bizkaia	14	7.881	7.895
Gipuzkoa	11	5.059	5.070
GUZTIRA	32	14.677	14.709

Hala, terminalen parkea 53.607 terminalek osatzen dute, eta horietatik 14.709 terminal digital daude funtzionamenduan, beraz, 2020aren amaieran etxeen digitalizatzeko-maila % 27,44 izan da.

Zerbitzuaren digitalizazioak urtetik urtera izan duen bilakaerari dagokionez, 2020an nabaria izan da hazkundea, parke osoaren % 16tik % 27ra hazi baita.

	2019			2020		
	Digitalak	guztira	%	Digitalak	guztira	%
Araba	947	6.118	% 15	1.744	6.266	% 28
Bizkaia	4.685	28.179	% 17	7.895	29.078	% 27
Gipuzkoa	2.705	17.324	% 16	5.070	18.263	% 28
Terminal digitalak	8.337	51.621	% 16	14.709	53.607	% 27





KOORDINAZIO SOZIOSANITARIOA

Eusko Jaurlaritzak, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailen bitartez, gizarte-zerbitzuak eta zerbitzu sanitarioak koordinatzearen alde jotzen du, zaharkitze demografikoaren erronkari aurre egiteko eta erkidego-eredua sendotzeko eta garatzeko tresna gisa.

Asistentzia-ikuspegi bat da, pertsonengan eta zerbitzu integraletan ardatzen dena, eta etxeak funtsezko betekizuna du zaintza-zentro gisa. Halaber, informazio eta komunikazioko teknologiek pertsonak beren ohiko familia- eta gizarte-ingurunean mantentzeko eta integratzeko laguntzen diete.

Telelaguntza-zerbitzu publikoa borondate hori gauzatu dela frogatzen du, eta hainbat lankidetzaren ezartzen ditu entitate eta zerbitzu publikoen artean, eta, horri esker, esparru sozialetik eta sanitariotik arreta integrala eman ahal zaie erabiltzaileei. Lankidetzaren soziosanitario horren adibide argiak dira Osasun Batzordearekin izandako koordinazioa, alde aurreko hitzorduak kudeatzea, arreta-zentroa gripearen txertoak jartzeko kanpainari buruzko informazio-plataforma gisa erabili izana eta, COVID-19k eraginda, 2020an abiatutako Guztion Artean programa.

GUZTION ARTEAN

COVID-19k sortutako pandemia dela medio, Guztion Artean programan parte hartu du betiON-ek. Programari esker, ELKARTASUN-SARE ANTOLATUA egin da, hainbat erakunderen lankidetzaren ondorioz sortu dena, besteak beste: instituzio publikoak, Gurutze Gorria, Cáritas, hirugarren sektore sozialaren sareen sarea (Sareen Sarea) eta Boluntariotza Agentziak, Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaian eta Boluntariotzaren Euskal Kontseiluan osatuak, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren zuzentzauei helduta.

Sare horrek laguntza formala (instituzionala), telelaguntza-zerbitzuaren bidez, eta herritarrek antolatutako elkartasuna bateratzen eta koordinatzen zituen, osasun publikoaren arduradunen eta Lehendakariaren ezinbesteko buruzagitzatik abiatuta.

betiON-ek Telelaguntza-zerbitzuaren erabiltzaileekin harreman jarraitua izateko aukera eman zion sareari. 2020ko martxoan, 57.086 pertsonari eskaini zitzaizkion Guztion Artean sarearen zerbitzuak, sendagaiak, elikagaiak eta abar emateko.

OSASUN-BATZORDEA

Osasun Batzordearen zerbitzuaren eta betiOn zerbitzuaren arteko lankidetzaren bederatzigarren urteurrena bete da. Osakidetzako larrialdi-zerbitzuarekin koordinatutako lanaren emaitza da. Osakidetzak kudeatzen du Osasun Batzordearen herritar guztientzako zerbitzua urteko 365 egunetan eta orduko 24 orduetan. Osasun-arazo baten aurrean nola jardun kontsultatzerako orduan biztanle guztientzako erreferentziatzeko puntua izatea du helburu.

Zerbitzuaren erabiltzaileek osasunari buruzko kontsulta bat badute, sakagailuaren bidez arreta-zentroarekin harremanetan jarri behar dira bakarrik, eta telelaguntza-zerbitzu publikoak deia eratorriko dio Osakidetzako Osasun Batzordeari. Jarraipen-deietan, edozer osasun-arazoren aurrean artatuak izateko aukera dutela jakinarazi eta gogoratzen zaie erabiltzaileei, dei hori eratorriz.

2020an, 38.547 dei eratorri zaizkio guztira Osasun Batzordeari, eta aurreko urtean, 32.860. Horrela, eratorpen-kopuruaren goranzko joerak aurrera egin du, eta aurreko urtearekin alderatuta % 17,31 hazi da.



Martxoan egon da eskaerarik handiena, COVID-19 pandemiaren hasieran, alegia. Hilabete horretan 3.791 kontsulta egin ziren guztira.

	2020- urt.	2020- ots.	2020- mar.	2020- api.	2020- mai.	2020- eka.	2020- uzt.	2020- abu.	2020- ira.	2020- urr.	2020- aza.	2020- abe.	GUZTIRA
Araba	447	368	542	404	438	327	356	389	388	437	380	421	4.897
Bizkaia	2.073	1.663	2.187	2.042	1.905	1.726	1.829	1.842	1.737	1.950	1.657	1.894	22.505
Gipuzkoa	960	801	1062	931	843	827	950	926	917	1015	962	951	11.145
GUZTIRA	3.480	2.832	3.791	3.377	3.186	2.880	3.135	3.157	3.042	3.402	2.999	3.266	38.547

Hauxe izan da 2012az geroztik Osasun Batzordeari eratorritako deien bilakaera:

	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Araba	2.064	2.354	2.587	2.878	3.071	3.276	3.731	4.029	4.897
Bizkaia	7.532	9.972	11.588	13.044	14.381	15.446	17.848	19.333	22.505
Gipuzkoa	3.077	4.350	4.901	5.468	6.247	7.248	8.841	9.498	11.145
GUZTIRA	12.673	16.676	19.076	21.390	23.699	25.970	30.420	32.860	38.547

Erabileraren hazkuntza urtetik urtera:

	2013- 2012	2014- 2013	2015- 2014	2016- 2015	2017- 2016	2018- 2017	2019- 2018	2020- 2019
Araba	% 14,05	% 9,90	% 11,25	% 6,71	% 6,68	% 13,89	% 7,99	% 21,54
Bizkaia	% 32,40	% 16,21	% 12,56	% 10,25	% 7,41	% 15,55	% 8,32	% 16,41
Gipuzkoa	% 41,37	% 12,67	% 11,57	% 14,25	% 16,02	% 21,98	% 7,43	% 17,34
GUZTIRA	% 31,59	% 14,39	% 12,13	% 10,79	% 9,58	% 17,14	% 8,02	% 17,31

Osakidetzako Osasun Batzordeak kudeatzen ditu erabiltzaileen kontsultak osasunari buruz. Azken urteetan zehar finkatu dira eta normalizatuta daude telelaguntza-zerbitzu publikoaren erabileran.

**ALDEZ AURREKO HITZORDUA**

2012an Osakidetzarekin hasi zen lankidetzari jarraipen gisa, 2020an zehar betiON-etik laguntza eman zaio erabiltzaileen alde zuzeneko hitzorduak kudeatzeari Osakidetzak herritarrentzako duen web-orriaren bitartez.

Telelaguntzako erabiltzaileek sakagailua sakatuz gero, BetiON-ek eskaintzen duen alde zuzeneko hitzorduzerbitzuak aukera ematen du arreta-zentroko langileek Osakidetzako lehen mailako arretako zentroko osasun-profesionalekin hitzordu bat kudeatzeko beraiantzat.

- Telefonozko hitzordua medikuekin edo erizainekin.
- Aurrez aurreko hitzordua medikuekin edo erizainekin.

Telelaguntza-zerbitzu publikoaren arreta-zentroak 482 hitzordu-eskabide jasotzen ditu hilean, batez beste, eta Osakidetzako webaren bitartez kudeatzen dira.

2020, betiON-etik 5.786 hitzordu kudeatzen lagundu zen; 2019an, 5.789; beraz, urtetik urtera % 0,05eko jaitsiera egon da.

	urtarrila	otsaila	martxoa	apirila	maiatza	ekaina	uztaila	abuztua	iraila	urria	azaroa	abendua	GUZTIRA
Araba	60	61	67	36	43	48	53	53	53	80	59	43	656
Bizkaia	303	240	286	219	241	260	352	243	393	450	326	231	3.544
Gipuzkoa	139	80	131	101	88	141	139	118	163	192	164	130	1.586
GUZTIRA	502	381	484	356	372	449	544	414	609	722	549	404	5.786

Hona hemen hitzorduak kudeatzeko laguntzaren bilakaera 2012az geroztik:

	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Araba	945	1.502	1.527	1.043	975	851	823	745	656
Bizkaia	3.128	5.407	5.918	5.294	4.610	3.900	4.102	3.687	3.544
Gipuzkoa	890	1.476	1.682	1.338	1.200	1.166	1.506	1.357	1.586
GUZTIRA	4.963	8.385	9.127	7.675	6.785	5.917	6.431	5.789	5.786

Hitzorduak webetik kudeatzearen erabileraren aldaketa urtetik urtera:

	2013- 2012	2014- 2013	2015- 2014	2016- 2015	2017- 2016	2018- 2017	2019- 2018	2020- 2019
Araba	% 58,94	% 1,66	- % 31,70	- % 6,52	- % 12,72	- % 3,29	- % 9,48	- % 11,95
Bizkaia	% 72,85	% 9,45	- % 10,54	- % 12,92	- % 15,40	% 5,18	- % 10,12	- % 3,88
Gipuzkoa	% 65,84	% 13,96	- % 20,45	- % 10,31	- % 2,83	% 29,16	- % 9,89	% 16,88
GUZTIRA	% 68,95	% 8,85	- % 15,91	- % 11,60	- % 12,79	% 8,69	- % 9,98	- % 0,05

Sistema soziosanitarioarekin lotutako administrazio-prozesuei laguntza pertsonalizatua emateak –horren barruan dago Osakidetzaren lehen mailako arreta alde zuzeneko hitzordua eskatzea– aukera dakar betiON-ek biztanleei zerbitzu publikoekin duten harremana errazteko eta administrazio publikoak eskariaren kudeaketaren eraginkortasuna hobetzeko.



GRIPEAREN AURKAKO TXERTOAK JARTZEKO KANPAINA


2020an zehar, Telelaguntza-zerbitzu publikoaren arreta-zentroa informazio-plataforma gisa aritu da Osakidetzarekin batera egingo den gripearen aurkako txertoaren kanpainan. Gaixotasunaren bortiztasun-maila murriztea eta zailtasunak garatzeko arriskurik handiena duten pertsonak babestea dira helburuak, batez ere, 65 urtetik gorako pertsonak eta gaixotasun kronikoak dituztenak. Zerbitzuaren biztanleak dira kanpainaren kolektibo hartzaileetako bat.

Lankidetzeta horren barruan, Telelaguntza Zerbitzu Publikoaren lana erabiltzaileak informatzea izan da, txertaketa-aldiari buruz.

2020an zehar, COVID-19ren ondoreak direla medio, zerbitzuak ez du bete beste batzuetan egin ohi duen bigarren funtzioa, alegia, txertaketarako hitzorduak kudeatzea, Osakidetza pertsona bakoitzari ematen ari baitzaio egun eta toki jakinak, kanpaina hobeto antolatze aldera.

2020an, emaitza hauek jaso dira: erabiltzaileen % 66ek txertoa jarri dutela adierazi dute, eta % 13k ez dutela jarri. Gainerako pertsonak etxean ez zeudenez, haiekin harremanik ez da izan, edo ez dute adierazi txertorik jarri ote dutenik.

Guztira, txertoa jarri dutela esan dute 38.165 pertsonak, 2019an, ordea, 31.045 pertsonak, beraz, 2019an baino % 23 gehiagok. Hazkunde nabari hori COVIDren eraginari egotzi ahal zaio.





JAKINARAZPENA

BetiOn zerbitzu publikoa da, herritarrei bideratua, non komunikazioa eta hedapena funtsezko elementuak diren. Hauxe da komunikazio-jarduera:

TELELAGUNTZAKO TOPAKETAK

Ekitaldi horiek zerbitzuaren erabiltzaileei eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuei zuzentzen zaizkie. Topaketa horien helburua da zerbitzua ezagutzera ematea erabiltzaileei edo, profila bete arren, oraindik zerbitzua ez dutenei. Bestalde, topaketa horiei esker, gizarte-zerbitzuetako profesionalek informazio eguneratua dute zerbitzuaren prestazioei eta arreta pertsonalizatuko ereduari buruz.

2020an, pandemiaren eraginez, topaketa horiek martxora arte bakarrik egin ahal izan ziren normaltasunez.

Ekitaldi horiek Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzaren interesaren ondorioak dira, zehazki, zerbitzuaren lana hedatzera emateko interesaren ondorioak. Horretarako, 3 lurralde historikoetako udalerriekin harremanetan jarri dira, zehazki, biztanle-kopuru antzekoa duten udalerriek baino estaldura-maila txikiagoak zituztenekin.

Hedatzeko lan proaktibo horrez gain, Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritzan beste udalerrri eta entitate batzuen eskabideak jaso dira betiON-i buruzko informazioa jasotzeko. Eskabide horiei erantzuteko, azalpen bateratuak egin dira (gehienbat linean), eta zerbitzua ezagutzera eman da beste jarduera itundu batzuen barruan, adibidez, erorketen lantegian.

Hala, 2020an, ekitaldiak eta hitzaldiak egin dira honako udalerrietan/lurraldeetan:

Lurralde historikoa	Udalerrria	Entitatea
Araba	Bernedo	Lagrango, Bernedoko, Haranako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak
	Gorbeialdea	Zuiako, Urkabustaizko, Zigoitiko, Aramaioko, Legutioko, Arratzua-Ubarrundiako OGZ
	Vitoria-Gasteiz	Udalerrian erortzea saihesteko lantegia
	Vitoria-Gasteiz	Udalerrian erortzea saihesteko lantegia
	Aiara	Okondoko, Artziniegako, Arespalditzako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak
	Okondo	Okondon erortzea saihestea
Bizkaia	Bilbo	Lanbideren eta EDE Fundazioaren prestakuntza
	Muskiz	Muskizko Nagusien egoitza
	Zalla	Zallako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak
	Zalla	Erortzea saihesteko hitzaldia Zallan
	Bilbo	BFA-DFB topaketak
	Bilbo	Bilboko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak
	Uribe- Kosta	Uribe-Kostako Oinarrizko GZ (Berango, Plentzia, Gorliz, Lemoiz, Urduliz, Sopela)
	Zalla	Erortzea saihesteko hitzaldia Arangurenen
	Arratia	Arratiako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak
	Bilbo	Bilboko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak



	Urduña	Urduñako Nagusien egoitza
	Bilbo	BILBAO-BASURTO ESI-ko gizarte-langileak
	Portugalete	Erortzea saihesteko hitzaldia Portugaleten
	Lea-Artibai	Lea-Artibaiko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak
Gipuzkoa	Zegama	Zegamako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak
	Lasarte - Oria	Lasarte-Oriako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak
	Goierri	Goierriko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak
	Urniet	Urnietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak
	Azpeitia	Azpeitiko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak
	Urola Kosta	Urola-Kostako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak
	Tolosaldea	Tolosaldeako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak

HEZKUNTZA-ZENTROEN BISITAK ARRETA-ZENTRORA

2013-2014 ikasturtetik, arlo soziosanitarioko prestakuntza-zikloetan telelaguntza-modulua gehitu zen. Gainera, telelaguntza-deiak kudeatzeko profesionaltasun-ziurtagiria ezarri du Lanbidek. Hezkuntza-zentroek telelaguntza-zerbitzu publikoarekin koordinatzen dute ikasleen taldeek irakasleekin egiten dituzten bisitak. 2020an, bisita horiek urtarrilean eta otsailean bakarrik egin izan ahal ziren, non hiru lurralde historikoetako ikastetxeetako 3 ikasle talderen bisita jaso zen.

Bisita gidatu horiek bi taldetan egin ohi dira hilabete bakoitzeko hirugarren ostiralean, ikasturteko hilabeteetan.



KOMUNIKABIDEAK

Komunikabide jeneralistek, idatzizko bertsioan eta digitalean, Telelaguntza Zerbitzu Publikoa aipatu dute, eta, bereziki, pandemian zehar erabiltzaileei emandako zerbitzua nabarmendu dute, kasu askotan instituzioek pertsona horiekin izan duten komunikabide nagusia izan baita. Hona hemen komunikabideen titular nabariak:

- **«Zalla imparte talleres a personas mayores para evitar las caídas», 2020-01-04an idatzia Deia egunkarian.**
<https://www.deia.eus/bizkaia/2020/01/04/zalla-imparte-talleres-personas-mayores/1009662.html>;
- betiON zerbitzuaren arduradunari eginiko elkarrizketa, Euskadi Irratian 2020ko urtarrilaren 11n:
<http://www.parkinsonbizkaia.org/entrevista-en-euskadi-irratia-a-josu-azaola/>;
- **«BetiOn telelaguntza-zerbitzu publikoak 56.000 pertsona artatzen ditu», eitb-ren web-orrian argitaratua 2020ko urtarrilaren 21ean, betiON telelaguntza-zerbitzuaren berri emateko**<https://www.eitb.eus/es/radio/radio-euskadi/programas/boulevard/detalle/6973965/betion-programa-teleasistencia-mayores-personas-discapacidad/>
- **«El servicio de teleasistencia betiON abre un nuevo centro de trabajo en Aretxabaleta para mejorar la atención de los usuarios de las comarcas de Debagoiena, Durangaldea, Gorbeialdea y Goierri».** El medio egunkariak argitaratua 2020ko otsailaren 25ean
<https://www.elmedio.es/el-servicio-de-teleasistencia-betion-abre-un-nuevo-centro-de-trabajo-en-aretxabaleta-para-mejorar-la-atencion-de-los-usuarios-de-las-comarcas-de-debagoiena-durangaldea-gorbeialdea-y-goierri/>
- **Más de 500 voluntarios en una semana para «Guztion Artean, solidaridad organizada» non betiON telelaguntza-zerbitzu publikoa aipatzen den 2020ko martxoaren 23an**
<https://www.donostitik.com/mas-de-500-voluntarios-en-una-semana-para-guztion-artean-solidaridad-organizada/>;
- **«El servicio betiON refuerza la atención con un teléfono gratuito», Deia egunkarian argitaratua 2020ko apirilaren 11n** <https://www.deia.eus/actualidad/sociedad/2020/04/11/el-servicio-betion-refuerza-la/1030816.html>
- **«Betion telelaguntzako euskal zerbitzuak zerbitzuan alta emateko prozedura erraztu du//El servicio vasco de teleasistencia, betiON, simplifica el procedimiento de alta en el servicio».** Zallaren web-orrian argitaratua 2020ko maiatzaren 12an
<http://zallainfo.zalla.eus/2020/05/betion-telelaguntzako-euskal-zerbitzuak.html>
- **«El servicio de teleasistencia betiON refuerza la atención a personas mayores en la CAV», Naiz egunkarian argitaratua 2020ko apirilaren 11n:**
<https://www.naiz.eus/es/actualidad/noticia/20200411/el-servicio-de-teleasistencia-betion-refuerza-la-atencion-a-personas-mayores-en-la-cav>
- **«El servicio de teleasistencia betiON refuerza la atención con una línea 900 gratuita»** Entre Mayores egunkarian argitaratua 2020ko apirilaren 13an
<http://entremayores.es/spa/ccaa.asp?var2=Euskadi&var3=El%20servicio%20de%20teleasistencia%20betiON%20refuerza%20la%20atenci%F3n%20con%20una%20l%EDnea%20900%20gratuita&nar1=3&nar2=22&nar3=43047&nar5=5>



- **«La teleasistencia, un servicio esencial y sin interrupción, determinante en la Covid-19»**, Entre Mayores-ek idatzia. Entre Mayores egunkaria. 202. zenb., 2020ko uztaila-abuztua, 29. or.
http://www.entremayores.es/spa/actualidad_empresarial.asp?var2=Noticias&var3=La%20teleasistencia,%20un%20servicio%20esencial%20y%20sin%20interrupci%F3n,%20determinante%20en%20la%20Covid-19&nar1=6&nar2=44&nar3=44200&nar5=1
- **«El potencial transformador de la teleasistencia»**, Tunstall-ek Entre Mayores egunkariaren web-orrian jarritako sustapen-esteka.
<https://www.tunstall.es/recursos/white-papers/2020/06/potencial-transformador-teleasistencia;>
- **«El Servicio Vasco de Teleasistencia, BetiON, sigue brindando asistencia y apoyo a las personas mayores»**, Zallako udal-aldizkarian argitaratua, 75. zenbakikoan, 5. orrialdean
https://issuu.com/zallainfo/docs/zallainfo75_iraila-septiembre2020_web;
- **«Artolazabal reclama que el estado apoye los proyectos de ámbito social»**, Entre Mayores egunkarian argitaratua, 203. zenbakikoan, 12. orrialdean. betiON telelaguntz-zerbitzua aipatzen du eta hari buruz aritzen da.
<http://entremayores.es/spa/ccaa.asp?var2=Euskadi&var3=Artolazabal%20reclama%20al%20Estado%20que%20apoye%20tambi%9n%20los%20proyectos%20vascos%20del%20E1mbito%20social%20&nar1=3&nar2=22&nar3=44481&nar5=5>
- **«1.200 personas de Durangaldea cuenta con el servicio de teleasistencia betiON del Gobierno Vasco en el hogar»**, 2020-12-03an argitaratua Facebook-en eta Durangaldeko mankomunitatearen web-orrian.
http://www.mdurango.org/es-ES/Noticias/Paginas/20201203_1200personasdeDurangaldeaacuentaconelserviciodeteleasistenciabetiONdelGobiernoVascoenelhogar.aspx